

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**303/2026 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa. Bete gabe uztea Natura Ingurunearen Zuzendaritzara atxikitako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) lehiaketa espezifikoko sistemaren bidez betetzeko deialdia**

Martxoaren 4ko 130/2026 Foru Aginduaren bidez (2026ko martxoaren 13ko ALHAOn argitaratua, 31. zk.), dei egin zen Natura Ingurunearen Zuzendaritzara atxikitako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) lehiaketa espezifikoko sistemaren bidez betetzeko.

Eskabide bat jaso zen, aipatutako foru aginduaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez zituen.

Ekainaren 1eko 286/2026 Foru Aginduaren bidez, deialdian onartutako enpleguaren eta baztertutako enpleguaren behin-behineko zerrenda onetsi zen, eta ez zegoen onartutakorik.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta alegaziorik aurkeztu ez denez, eta izangaiak prozesuan parte hartzea ahalbidetzen duen zuzenketarik egin ez denez, ez dago behar bezala inskribatutako inor, eta, hortaz, deialdia bete gabe geratu da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bete gabe uztea Natura Ingurunearen Zuzendaritzara atxikitako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1048.001) lehiaketa espezifikoko sistemaren bidez betetzeko deialdia.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa jar daiteke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundearen aurrean; hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan jasotakoarekin –Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik–.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 10a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**